7.1 inprimakia

Inprimaki honek kolektoreetara substantzia arriskutsuekin egindako industria-isurketen banakapena hartzen du barnean. Inprimaki hau betetzeko, **idatzi letra larriz, eta markatu gurutze batez** dagozkion laukiak. Eman **ahalik eta informazio gehien,** eskaera behar bezala izapidetzeko.

Espediente-zenbakia:	

Espediente-zenbakia izanez gero bakarrik bete behar da.

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

1 Kolektoreetara egindako industria-isurketen inbentarioa, saneamendu-plana eta isurketen kontrola

Jatorriaren hurrenkera Zk.(i)	EJSN(ii)	EJSNren titulua(ii)	Titularra	Emaria(iii)		Substantzia arriskutsu aipagarriak(iv)
				m^3/egun	(m^3/urte)	

2 Isurketa-adierazpena betetzeko jarraibideak

7.1 inprimakia

Toki-erakundeek aurkeztutako eskaeretarako erabiliko da inprimaki hau. Hondakin-uraren fluxuetan substantzia arriskutsuen presentzia esanguratsua denean baino ez da bete beharko. Substantzia bat isurketan modu esanguratsuan presente dagoela jotzeko atalasea hau da: haren kontzentrazioa handiagoa izatea erabilera orokorreko teknika analitiko aurreratuenen kuantifikazio-muga baino. (JPHEren 246.2.a) eta b) art., eta 459/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzkoa).

KOLEKTOREETARA SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEKIN EGINDAKO INDUSTRIA-ISURKETEN INBENTARIOA

i. Isurketari 1.1 inprimakiko A) atalean esleitutako hurrenkera-zenbakia adierazi beharko da, hain zuzen ere zehazteko kolektoreetara zeharka egindako isurketa bakoitza zer udalerritatik, alkate-auzotik, barrutitatik eta abarretatik datorren.
ii. Jarduera-taldearen araberako isurketen sailkapen-taula kontsultatu behar da, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren IV. eranskinean. Errege-dekretu horren bidez, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen da, zeinak garatzen baititu Uren Legearen testu bateginaren (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) atariko titulua eta I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluak.
iii. Baimendutako emariren bat egonez gero, horren berri eman behar da.
iv. 3.5 inprimakiko substantziak dira, isurketan daudenak eta kontzentrazio handiagoa dutenak erabilera orokorreko teknika analitiko aurreratuenen kuantifikazio-muga baino.